

+ Inaitasuna

IV URTEA - N.º 42

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Avendua (12) 1957

Arimeari jaten emoten deutzazu?

Lengo illean zelebrau zan Bilboko Obispadu onetan Ebanjelio Santuaren astea. Gure Obispo Jaunak gura dau kristiñau guztiok libru santu ori obeto ezautu, geiago maite ta sarriago erabilli daigun. Izan be, Jaungoikoak beré Seme maitea bialdu euskun mundura gizon egiñik, eta Ak egiñikako eta erakutsiriko gauzak, libru-orretan dagoz gordeta. Ba al dago janari oberik eta berba aberatsagorik gure kristiñautasuna azi eta sendotuteko? Alan da guztiz be, zenbat dira gure artean libru santu ori ezaututen eta irakurten dabenak?

Gipuzkoako Tolosan be Zemendiaren 13 tik 15-era egon dira itzaldi batzuk, Madrid-ko PPC dakoak (Propaganda Popular Católica) ipiñita. PPC-ko jaun orreek aspalditik dabiz folleto batzuk ataraten erderaz, kristiñau erlegiñokó egiak eta irakaspenak erriaren artean geiago zabaldu-tearren: Euskerara be biurtu dira orrelako folleto batzuk, eta apurka-apurka geiago be biurtuko eta argitaratuko dira oindiño. Euskerazko folleto orreen esposiziñoa egin zan, ba, Tolosan, eta bai asko saldu be. Eta itzaldietan berba egin ebenak auxe esan eben gitxi gorabera: kristiñauak ze obligaziño zorrotza daukon bere erlegiñoko gauzak jakiteko, eta orretarako danok eutsi ta lagundu bear deutzagula Prensa katolikoari.

Egia aundia au. Euren burua kristiñautzat josten dabenak be, askotan ba al dakie gure erlegiñoak erakusten dabenaren laurenik be? Kristiñau dotriñeak dakarrena jakingo balebe sikieran... Eta eztakiana, zelan biziko da gero bere kristiñau izenak eskatuten daben moduan? Orregaitik ikusten dira bazterretan ainbeste ta ainbeste kristiñau txar. Izenez kristiñauak, izanez edozer gauza...

Gizonak zati bi ditu: gorputza eta arimea. Eta

gorputzari jaten emoten deutzagulez, arimeari be jaten emon bear yako. Eta arimearen jatekoa dira egia, dotriñea eta jakitea. Eztago kristiñaurik, kristiñau eskola barik. Eta eskola ori kristiñauak nun ikasiko? Ain zuzen be orretarako dagoz sermoiak eta berbaldiak, baiña eztira naiko. Gaur eguneon libruak eta danetariko paperak sartuten dira leku guztietan, azkeneko okelluetaraiño. Eta askotan paper orreitan datorrena ezta izaten kristiñauaren eskola garbia. Kristiñauak ikasi bear dau mundua eta bizitza kristiñau begiekin ikusten. Gaur eguneko arazoak, auziak, problemak kristiñau begiekin ikusi, eta kristiñau sustarren bidez erabagi. Eta orretarako bistan dago libru katolikoa eta Prensa katolikoa derrigorrezkoak dirala.

Eta euskaldunak euskeraz, gaiñera. Esango deutzazu gitxi edo bape eztagola euskerazkorik. Zoritxarrez gitxi dago. Baiña ez ain gitxi be. Urte oneetan urten dabe kanpora makiña bat euskerazko libruak. Baiña dagoan apur orreri eusteko eta lagunduteko zer egiten dau kristiñau euskaldunak? Geienetan jaramonik be ez.

Eta beste batzuk, atxakiak ipiñi. Garbi-zakantzera badator, a euskerea gatxa dala ta ezin leikela ulertu. Argi-zale bada, euskerea zikinduten dabela, eta olakorik eztogula bear. Eta bitartean, Buridan-en asto-emea lez, garagarra ta pentsua ondo-ondoan euki ta goseak ilten itzi. Ez gaitazan ibilli zozokeritan, Jaungoikoaren amoriarren! Zentzau gaitezan, eta dagoan apurrari eutsi ta lagundu daigun. Ez gaitezan itsuak izan, batzuk eta besteak erlegiñoaren alde eta euskerearen onean gabiz-ta. Gaiñera, kristiñau libru eta orriak zabal-dutea, apostoladurik ederrena egitea da.

L. Villasante



Samesak

Joan dan urrian, baztarrak guztiak dardaganean jarri ditue errusiatar jente zoliak. Zer dala-ta? Aspaldion beti dauke nundik edo andik ikara-antza sartzeko aukera ta eretia. Oraingoan, ba dakizue guztiok, or goian bira-biraka jarrierazo daben satellite edo ingurari ori dala-ta. Mundu-bola onen inguruan beste mundutxu txiki-txiki bat, baiña gizonak as-mautā eta eginda.

Iretargitxu gorria eta Sputnik izenak ezarri deutsez. Arrezkero, amerikanoak or yabilkuz jo ta su, besteak baiño eskasago izan nai ezik. Bakerako ba lira asma-kizun orrek, eta ez gizonen kalterako...

* * *

Sarri be sarri esaten dakiz berba ederrak gure Aita Santuak. Oraingoan bere, argi ta garbi adierazo deuskuz gizonak euren izakerea zainduteko dituen esku-bideak. Bakoitza, bakoitza izan bear da, eta ez ondokoaren antzekoa goitik eta beçraño. Eta erriak bere, ez dabe galdu bear euren barruko izakerea.

Gure denporako bardindu bearrak, ez dirala bidezko. Orra Erromako Aita gu-renaren esakera argiak. Gureztat bere, egoki datoz berba orreek. Euskalerrriak eztauko zetan galdu bere izakera eta antzik.

* * *

Barruko izakerea galdu ezarren, gane-ko zerok noiztik noizera aldatu eta barriztautea, ezta ostera ezer okerra. Eta orra ba. Paris-eko jantzi-asmaitzaille pun-terengoaren il barria zabaldu da mun-duan, eta laster zabaldu be. Bai, irakurle; Dior il da, eta moda-goraberak orain mo-teldu eta gusto barik lotuko ei dira.

Baiña, bai zera! Eztogu orrenbesterik siñistuko. Periodistak esaten dituen gau-zak dira olakoak. Gizon bat galdu arren, barriren bat agertuko da.

* * *

Emen dabiz bilbotarrak larri, mustu-rrak oker eta surrak astinduta.

Zeózer izango da orren aziera ta sus-terra. Bai, badakigu. Zera... Atleti-ko mu-tillak ez darabilela ganora aundirik eta...

Aurten be, naikoa lan izango dala tal-de edo ekipu ona atonduteko. Ori be, ezta bear modu txarto pagauten dana baiña... Gogorik ez? Nekatuta? Ez-egoki?

* * *

Arrantzale euskaldunak beti izan dabe maite itsasoa.

Ain zuzen be, euskaldun bat izan zan, munduari lenengoz bira osoa egin eutsa-na. Getariako semea, Elkano entzutetsua. Ameriketako lurraldeak topau ebezanean be, antxe ebiltzan euskaldunak españar, portugaldar, italiarren artean.

Kolon-egaz ainbat Euskalerriko seme-joan ei zirean. Eta geroago, Legazpi eta Txurruka eta ainbat eta ainbat euskaldun ibili dira itsasoak austen. Bizkaiko erri-

«ANAITASUNA» DE VIZCAYA

DIRECTOR:

P. Manuel Berriatua

PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

ADMINISTRADOR:

P. Teófilo Arzallus

PP. Franciscanos, Zarautz, Guipúzcoa

Irakurri Bizkaiko ANAITASUNA

Eskatu Zarautzera

Urte beteko suskriizioa: 12 peseta

txuetan, arrantzale izan ezta be, edonun dagoz ur aundietan ibilitakoak; batzuk nabegetan ibili diralako, eta beste asko Ameriketara ta joan etorriak egiñak diralako.

Orrez ganera, eta orrez antziñago, euskaldunak amargarren mendean edo bear bada leenago be, baloi edo arrain aundien atzetik eta makallauen billa, aspaldiko denporetan ibiliak ei zirean Islandia eta Terranova-ko alderdi inguruetan.

Eta orain, orra nundik nora, barrero be, euskaldun arrantzaleak emengo uretatik urrunera doazan.

Afrika aldera, Dakar portu alderantz doaz, an atunetan eta egaluzetan jarduteko. Emen, Kantabrikoan, urrira ezkerro, amaitu oi da atunetea. An, barriz, zezeñlleraño ekingo deutse arrain artzen, bape suerterik ba dabe.

Ondo ibili, arrain asko artu, eta osasunez eta ondasunez etorri zaitezela guztiok, beranduegi baiño leen!...

* * *

Edozek dauko gure egunotan bere Eguna. Misiñoien eguna, Liburuaren eguna, Irakaslearen eguna, Umearen eguna, Amaren eguna... eta abar.

Gure Euskera maiteak be, bear eban bere eguntxua, eta orain dala bost urte edo, kanpoan dagozan euskaldunak asmau eben Egun ori aukeratzea. Eta bada-kizue noiz izaten dan Euskerearen eguna?

Illaren iruan izan zan Frantsisko Xabier-en jai-eguna. Eta orduantxe izan oi da gure berbetearen jai-aldia be.

Il zanean, an Indietako lur beroetan, bere azkeneko itzak, euskerazkoak izan ei zirean, Xabier deuna euskalduna zalako, geu langoxe euskalduna. Orregaitik, nor zaindari ta jagola oberik, bera baiño, gure Euskera maitagarriak?

Emen, Bilbon, meza bat izan zan, eta bertan euskeraz esan zirean alkar-jardun edo dialogoak, euskeraz idazkia eta barri ona, euskeraz kanta gozoak.

Egun orretan asmo barria artu genduan, beste urte bete osoan, euskeraren alde jo ta su ekiteko.

ERKIAGA E.

Euskaldun Gurasoak,
zeuen umeentzako kristiñau ikasbide
errez errez bat gura badozue, eskatu

«KRISTINAU KATEZISMOA»


ANAITASUNA-ren euskera errezean
egiñiko liburutxu polita

Salgei:

Librería Verdes

Correo, 7

BILBAO



GABON OITURAK

Gabon inguruan gagozan ezkeru, ezta txarto etorriko, geure Gernika onetan orain-diño irauten daben oitura polit baten barri emotia.

Gabon aurreko bederatzi goizaldetan, gizon aldra txiki bat kalerik kale ibilten da, Jesusen jaiotzeari dagokiozan abesti berezi bereziak kantetan. Abesti oneeri eta baita abeslari eurari bere, *Mari-Jesiak* deitzen deitzen deutsegu.

Ze pozik entzuten doguzan goizaldean, oe epeletan batu batu egonda! Oh, ba-jatozak *Mari-Jesiak*!

Lenengo lau egunetan, muxika doñu bat erabilten dabe, eta beste bost egunetan, beste bat; muxika biok eta baita Gabon egunekoa bere, oso ezagunak doguz, eta txiki txikitatik ikasi genduzan gernikar guztiok.

Mari-Jesiak letratxu egoki egokiak erabilten dabez; eta aukeraz daukaguzan ezkeru, —eta larregi ez luzatutiarren, bako-txetik bi ipiñiko doguz:

Abendu santu onetan
Kristoren jaiotzia:
albiste eder onegaz
guztiok poz gaitian.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

Idigi dira zeruak,
ate diamantezkuak,
eta eurakin batera
leio izarrezkuak.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

Nor eta nor bizi da
etxetu zar orretan,
nor eta zer gura zeunke
Jaunaren ordu onetan.

Jesukristo, adoratzen zaitugu, Jesukristo.

Billosik bazagoz bere,
etzara zu pobria:
zeruan josirik dago
zuretzaoko erropia.

Jesukristo, adonatzen zaitugu, Jesukristo.

Eta Gabon egunian bertan, Mari-Jesiok bi aldiz igaroten dira geure kalietan zear: lenengoz goizaldeko laurak inguruan, eta bigarrenez seiretan, baiña orain erriko tanbolin jotzailleak aurretik dirala.

Txistulariak euren zortzikoa jotzen dabe; Mari-Jesiak barriz, euren betiko kantak. Iñundik iñora eztauke bardintasanik, baiña alan da guzti bere, ze ederto alkatzen diran geure belarrietan, eta ze atsegiñez entzuten doguzan!

Gero erriko plazan aureskua izaten da, eta azkenez abeslariok egun guztian etxerik etxe eskean ibiltzen dira:

Belengó urian
Gabon gabaren erdian,
Birgiña guztiz santia dago
atsegintasun andian.
Da bart Belenen
jaio da Jesus Nazaret.

Ortxik gora ni noiela,
ospitaletxu zar baten
Aita San Jose ikusi neban,
asto txiki bat txaimatzen.
Da bart Belenen
jaio da Jesus Nazaret.

Bederatzi goizaide onetan, eleiza aurretik igarotakoan, eta baita asikeran eta amaitukeran be, belauniko jartzen dira eta, aítara nagusiari aurre emonaz, auxe abestuten dabe:

Sakramentu santua,
Jesus onen gorpua
izan bedi munduan
beti bedeinkatua.

Gernikatik
BELU



SAN FRANTZISKOREN OTOITZ BAT

Emen ipiñiko dogun otoitz au Norte-Amerikan, liburu baten agertu izan da orain amar amabi urte. Liburuaren izena **Words We Live By**, au da Biziten Irakaasten Deuskuezan Berbak, eta andik artuta, **This Week** deritxon errevistek: zabaldu dau mundu guztira.

Otoitz eder au San Frantziskorena bada, here biotz maitasunez gorituaren barrurengo odolagaz idatzia da.

Ordurik ona 700 urte baiño geiago dira, baiña orduan legez, gaur-bere eta denpora guztietan izango da gure bizitzako illuntasunetan argia, nai-bageetan itxaropena, pozaldietan indarra.

ANAITASUNAREN irakurleak ondo egingo dabe oraziño eder onen verbak buruz ikasi ta sari esaíea.

Egokia dirudi Jauna artu aurretik eta ostean egiteko.

SAN FRANTZISKOREN OTOITZA

O, Jauna, egin naizu zure Bakearen zabaltzaille.

Gorrotoaren lekuan ipiñi daidala maitasuna,

Injuriaren lekuan parkamena,

Dudearen lekuan sinismena,

Naibagearen lekuan itxaropena,

Illunaren lekuan argia,

Atsekabearen lekuan atsegiña.

O, Kristo, neure Jaungoiko Maisua! naiago izan daidala

Alaitu, ez alaitua izan,

Aditu, ez aditua izan,


Maitatu, ez maitatua izan.

Alantxe da, Jauna!

Emon ezkerro, artu egiten dogu,

Parkatu ezkerro, parkatuak izango gara,

Eta Zugan il ezkerro befiko, Bizitzara jaioten gara.



AASTE - BORRASTE

TELEVISIÑO A

Inglaterrako radiofonista batek esan ei eban: «Errien miiña redioa bada, errien begiak televisiñoa izan bear.» Televisiñoaren begiakaz ainbeste gauza jakiten doguz, eta segurantzza osoagaz geratuten gara, *ikusi egin dogulako*. Ori dala-ta, jakinbide au guztiz atsegingarria da gentearentzat.

FRANTZIAN

Asko zabaldu da TV-a auzoko naziñoan. Igaro dan aprillean, Inglaterrako Isabel II Frantzia visitetan etorri zanean, edonun egin zirean «erregiña batzarrak». Izen ori emon eutsen frantsesak, erregiña Frantzia egon zan bitartean, televisiño aparatuen ondoan egiñiko batzarrerri.

Erregiñearen hondran jai asko egin zirean, eta geienak televisatuak izan zirean. Frantsesak, milloika ikusi al izan zituen euren etxeetan, TV aparatuaeren ondoan trunkil trunkil jezarrita.

ITALIAN

«Cristoforo Colombo» transatlantiko italiñoak, Genova-New York joanetorria egi ten dauanak, televisiño emisorea daroa barruan. Bera da, aurrerakuntza ori daukan lenengo barkua. Pasajeruak euren kuartuetan ikusi leike naiz pelikula bat naiz orkesta bat naiz beste gauzaren bat.

HISPANOAMERIKAN

Zazpi naziñok danke televisiñoa. Emisora guztiak, ogetabost dira. Cubak bederatzi

estaziño daukoz, Mexicok zazpi, Venezuelak iru, Colombiak bi, Puerto Ricok bi, Santo Domingok bat, eta Argentinak beste bat. Televisiño aparatuaak, kalkuluaak oker ez badagoz, 310.000 baiño geiago dira. Programen duraziñoa, Argentinan esate baterako, amar orduko da egunero.

ESTADU ALKARTUAK

Nortamerikako Estadu Alkartuetako televisiñoaren azkenengo aurrerakuntzea auxe da: TV aparatuari beste aparatu espezial bat ipinten jako eta olan ziña ikusi leiteke. Zulo batetik botetan da dolar bat, eta beste barik ikusi leiteke errian emoten dan edozein pelikula.

INGLATERRA

Berton jaio zan televisiñoa. Euneko berrogetamarrek daukez TV aparatuaak. Orain alegin aundiak egiten dabilta, eskoletara televisiñoa eroateko, eta umeentzako programa egokiak atonduteko.

ESPAIÑIAN

Igaz agertu zan Espaiñian televisiñoa, Inglaterran jaio zanetik ogetamar urte igarota gero. Madrilleko TV programak iru ordu irauten dabe. Gure artean gauza bigaitik ez da zabaldu asko televisiñoa: emisioak Madrilletik 70 kilometroraiño bakarrik eltzen direalako, eta aparatuaak guztiz asko valio dabelako. Modelu txikiena, instalaziño ta guzti, 17.000 peseta kostetan da.



EMAKUMEAREN TZAKO

Ama diran eta izango diranentzako sei berba on

Orain urte asko ez dirala emakume on asko ilten ziran ama izatean. Eta umetxo asko etozan ilda mundu onetara. Orre-gaitik amatasuna bildugarri egiten zan.

Gaur, gauzak bestera jo dabe. Garbitasun geiagoak eta mediku-jakintzak asko egin dabe orretan. Entzun, ama, konseju batzuk:

1. *Biena jan ete bear dozu?*

Bientzat jan bear izateak, ez dau esan gura biena jan bear dala. Larregi jatea da ama barri batentzat arriskurik aundiena. Laugarren illabetera arte, ez dau andreak len baño geiago jan bearrik. Gero, ostera, gitxiago: berak jaten dauazan eundik bi edo zazpi bakarrik; amargarren partea be ez. Naikoa dau ama barriak gose danean jatea.

Loditzea ez dau ona. Ama barriak ez dau bere pixuan bederatzi edo amabi kilotik gora irabazi bear. Kaltegarri berarentzat, eta biarko aurtxoarentzat.

2. *Zer jan bear ete dozu?*

Ez dago erregla bat guztientzako. Gazteak eta bear egiten dauanak geiago jan bear, seguru.

Gitxi gora bera amen egun guztiko otordua:

—Litro bat esne, umearen azurrak ondo formatako bear diran kalzio eta fosforua daroazalako.

—150 gramo gaztae.

—Arrautza bat, burdiñea eta bitamiñak daukazalako. Giblekoa badaukazu, bapez arrautzarik.

—90 edo 100 gramo okela.

—Berdura eta fruta asko. Ogi gitxi. Arrain preskua, astean bein edo bitan.

3. *Gatzik artu bear?*

Askotan medikuak gitxiago artzeko agin-

duten dabe eta ori loditu egin arazten daualako. Guztiz itxi bearrik ez daukazu.

4. *Zer bezak kalte egiten ete dau?*

Ez onik ez txarrik ez dau egiten. Baña bai loditu. Eta lodi egotea kaltegarri da ama batentzako.

5. *Kafea eta likorrak?*

Kafea, bere neurrian, ona da. Goizean jikaratxu batek eta eguerdian beste batek ez deutsu kalterik egingo. Baña nerbiosa bazara, kontuz.

LAGUNARTEKO MEZEA

(Misa dialogada en Vizcaíno)

Aita Imanol Berriatuak egiñ:

Bigarren ediziñoa

Foilletu baxotxa: 3 peseta — Ogeitik gora 2,50

S'ALGAI:

Librería Verdes, Correo, 7, Bilbao
PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

Likorrik, ostera, bape ez edatea oba. Likorrak lenengo zure odolera doaz eta gero umearenera. Ardau apurtxo bat artu ete zeinken? Uragaz nastauta bai.

6. *Zer ez dozun jan bear?*

Iru eratako janariak ez dozuz jan bear:

—Len be nekez dijeriduten zenduzanak; orain nekezag sartuko dozuz-da.

—Janari gogorregiak: okelak, asko jaten danean, eta arraiñ batzuk: angulak batez be.

—Prijiduak, saltsak eta dijeriduteko gatx diran orreik. Gibelak lendik be badauka ama barriagan lanik asko.



VALENTIN BERRI-OTXOA DOATSUAREN KARTAK

Karta asko eskribidu zituan Valentin Doatsuak. Euretari k ogeiren bat euskeraz. Bere amak ez ekian erderaz. Eta orregaitik egiten eutson beti euskeraz.

Karta ederrak danak. Bere arimearen ispillua. Pozik argitaratuko geunkez danak erre-
vista onetan. Ori eziñean, ille onetatik aurrera euskerazkoak beñik bein argitaratuko doguz.
Onelan, uste dogu, obeto ezagutuko dabe gure irakurleak Bizkaiko Doatsua, bere irakasp
nerutarrak ikasiko ditue eta —zegaitik ez ba— bere euskera samurra gogoz irakurriko dabe.

Berak idatzi zituan lez argitaratuko doguz, ortografia bakarrik aldatuta. Noizik bein
notafen bat ipiñiko dogu, Doatsuak esan gura dauana expliketako.

Orain publikatzen dogun karta au, Doatsuaren lenengoa da. 1845-ean idatzi eban, 18
urte eukozala, Logroñoko Seminariora abade izateko joan zanean.

I

Nere amatxo maitia:

Oingo, konsideraziñoko begiyakin Lo-
groñora bost bidar begiratu eban; baiña
illa bat oindiño ezta igaro; berorrek
emondako plazua baiño lenago akordau
naiz.

Baiña, zer gura dau nik orain esatia?
Berorrek erantzungo dau: dana dan legez
edo bezela eskribitia. Ondo dago bada.
Kampuan egotekotan, gaozen baiño obe-
to ezin geindekez egon.

Goizian artzen dogu txokolatetxua
fotarekin eta vaso bete ure azukerresa-

narekin (1); eguardian, sopia, azia, gar-
banzua, urdaiya okela tajada onakin, eta
postrian matsa. Arratsian afaitan oliyo
azia, baiña ez erozeinbe modutakua; bes-
te fratel andi bat bete solomo edo okela,
edo beste alako tajada onak daukazen
gauzen bat; eta postrian matsa. Ondo
ipintien eta ostantzeko garbitasunen ga-
nian, eztago zer esanik. Gobernumodu au
ikusita, ez naiz atrebidu preziyuen ganian
verbarik egiten.

Asko da, ama, gaurko, eta orregaitik
agur egiten deutsa urrengo artian bero-
rren seme bakar,

Valentinek

(1) azukarilluakin